

IKASTOLATIK IKASTETXE NAGUSI EDO UNIVERSIDADEA

BITTOR



OARSO gure urteroko Malen jaietan agertzen dan revisita edo aldizkariaren zuzendariak, aurtengo alerako «Gipuzkoako Unibersidadea» gai artu ta bakoitzak derizkion eran, bere iritzi eta arrazoi bideak, arazo oneri buruz emateko eskatzen digu. Onek ez du esanai noski, derriorean onetzaz idatzi bear danik, baño uste det ain garrantzi aundiko gaia danez, ontan dabiltzan eta ulertzen duten irakasle ta idazleak, ain bearrezkoa degun Ikastetxe-nagusia eskatu eta lortzeko beren arrazoi ta argi-bideak, nik ez bezela azaltzen aleginduko dirala. Nere eskaxean, pentsatzen det, aspaldi bear genduan gauza zala ori, baño gaur egunetik egunera bearrago dala garbi ikusten dan ezker, iruditzen zait danok daukagula emen, bakoitzak bere mallan eta alduan eran, alegiñ guztiak egiñ ta saiatu eskaera orrek erri guztiaren arnas eta laguntza izan dezan. Gañera nik uste det Ikastolakin zerbaitetan saiatu geranok esan bearra dakagula, nola ez, bertan lenengo asi ta eskolatu diran aurrak, laster ditugula Unibersidade adiñeko gazte bihurturik eta beste arrazoi guzietaz gañera, euskeraz ikasten oituta daudenak izango al dutela «Gipuzkoako Ikastetxe-nagusia» batean euskeraz (beste izkuntzarekin batera, noski) edoziñ jakintza aztertu, eta aditzera emateko bear dan aukera eta erraztasuna.

Goi mallako ikasketa auek utzi eta beste gai bateko ikasi bearrari ikutu bat eman nai nioke, au da esku-lan edo opizio ikasteari, gaur «Enseñanza Profesional» deitzen dioten orreri alegia. Ba dakit noski, Europaruntz begiratu eta aurrera jo nai badegu bear-bearrezkoak ditugula arkiteto-injeniero-sendagille eta abar goi mallako karre-rakiko gizonak, baño egi txikiagoa ote da, bai ta ere, nai ta naiezkoak dirala, nola esango nuke nik... burni, altzairu,

egur eta abar lantzen, urte askoren poderioz ikasten ain zallak diran opizio eta langintzak ikasita dauden gizonak? Eta lantegi auek bear bezela ikasteko, ainbeste aunditu diran gure erri auetan (Errenderik 40.000 milla inguru) bai al dauzkagu bear ditugun eskolak? Ez diot ezer kendu nai emen daukagun D. Bosco Ikastetxe eder eta plaza atzean dagoen Profesional eskolari baño, lenengoan Gipuzkoako ta abar eta bestean erriko nai duten guztiak artzen ote dituzte?

Gogora datorkit, lantegi auetako bat ikasten asi giñan garaian gure erri onek 8.000 bat milla biztanle zituala eta orduko Artes y Oficios izeneko gaueskolak, bertan erakusten ziranak ikasteko, nai zuten erriko gazte guzti-entzat leku izan eta artzen zituztela.

Bai, ETXEZ ETA JENDEZ erruz ugaritu eta azi dira gure erriak baño bearrezko diran ainbeste gauza oso neurri exkaxean gelditu dirala igartzeko ez du edozeñiek talentu ikaragarrien bearrik.

Ta ontara ezker, oroipen txiki bat eskeñi nai nioteke garai artako eta eskola artan dibujoko maisu izan genitun Ambrosio Goikoetxea eta Pedro Otegi'ri eta auekin batera, besteak beste, Mateo Mujika eta Manuel Aizpurua'ri. Gizon auek beren taller eta eskolari esker, gaur ere, gure erri ontan ainbat taller eta lan-tokietan aien erakutsiak eta aiekin ikasitako ondorengoan lanak irauten dutela garbi ikusten bai ditugu oraindik ere.

Beste gabe, ain bearrezko ditugun Unibersidade eta era guzietako Ikastolak lenbailen lortuko ditugun itxa-ropenarekin, gure urteko Malen jaiak zorionez igarotzea opa dizuet.